

## Ane Pikaza

<https://anepikaza.com/>

### *El segundo de equilibrio (Oreka-segundoa)*

Nola aukeratu autorrepresentazio-forma bat, gure errealitatea etengabe mugitzen ari denean? Egoera berrietara berregokitzen bizi gara ezinbestean, pertsonaletara, sozialetara eta lanekoetara. Ildo horretan, Zygmunt Bauman filosofo eta pentsalariak gure egungo garaiaren ezaugarriak deskribatu zituen: etorkizuna eta identitateak eraikitzeko genituen errealitate sendoak aspaldidanik dira likidoak, aldakorak eta ezin iragarrikoak.

Ingurune horri dagokionez sortzen da nire autorrepresentazioa, iraunkortasunetik edo errepresentazio bakarretik urrun. Horrela, mugimenduan den bizirauteko autorretratu zatikatua planteatzen dut.

Zatituta dago arte eta kulturaren munduari lotuta egiten ditudan lan ugariak direla-eta; mugimenduan dago, proiektu berri bakoitzak jakintza-plano horien elkargune berri bat egitea dakarrelako; eta bizirauteko da, artearekin eta kulturarekin zerikusia duen guztia, itxuraz, behin-behinekotasunarekin eta egonkortasun ezarekin lotuta dagoelako ezinbestean.

Planteatutako gailuak Nia irudikatzeko aukerak biderkatzen dituen gainazal poliedrikoa eskaintzen du, autorretratu figuratibo errealistenetik edo avatar bat sortzetik urrun, nire burua nola ikusi edo baloratu nahi dudana adierazteko. Zerikusi gehiago du oreka-segundo hori lortzeko nire alderdi anitzek euren artean eta nire ingurunearekin nola hitz egiten duten hausnartzeko ideiarekin.

